

“Harremanak eratuz”

Eskerrak emango dizkiogu Jainkoari, guregan egin duen guztiagatik. Gure esker ona adieraziko diogu kide eta lagunak eman dizkigulako eta bai haiek eta bai gu, Jainkoak berak Jesusen atzetik jarraitzeko deitu gaituelako, bere barkamen eta errukia ziurtatuz, bestelako mundua eta gizakia posible direla aginduz. Ez gara kexu ematen ez digunagatik; alderantziz, eskerrak ematen dizkiogu egunez egun ematen digunagatik. Adiskideak, anai-arrebak ematen dizkigu, bere graziaz bedeinkaturik, bizikide izan gaitezen. Ez ote da nahiko? Ez ote digu egunero ematen, baita zailtasun eta mehatxuz beteriko egunetan ere, agerpen paregabe hau?

Joanen ebanjelioko txatala entzungo dugu

Jesus ikasleekin zegoen azken afaria ospatzen. Afalostean, beraiekin solasean hasi zen. Kopetilun zegoen; ikasgai garrantzitsua eman nahi ziela zirudien. Orduan, hauxe esan zien: «Hau da nire agindua: maita dezazuela elkar nik maite izan zaituztedan bezala. Ez die inork maitasun handiagorik adiskideei, bere burua haien alde ematen duenak baino».

«Gauzak derrigorrez, diruz edo beldurrez eginez gero, orduan morroia zara. Baina zuek niretzat ez zarete morroi; nire adiskide zarete. Eta nik egiten dudana egiten baduzue, nire jokaera baduzue, adiskidetasunagatik izan dadila. Neuk aukeratu zintuztedan. Neuk irakatsi nizuen nire Aita Jainkoarengandik ikasitakoa. Eta eginkizun bat eman dizuet: edonon fruitu ugaria eta iraunkorra eman dezazuela».

Joan 15, 12-18 pasartetik moldatuta
(‘rezandovoy.org’ delakotik hartuta)

Jainko Aita ona,
kurtsoaren amaieran,
eskerrak ematen dizkizugu
Zuregangik jaso dugun on guztiagatik.
Eskerrik asko, batez ere,
haur, aita eta amen talde honengatik
eta gutariko bakoitzagatik.
Eskerrik asko... (orain, saioko partaide guztien
izenak esango ditugu)

Kurtsoan zehar egindako guztia
aurkezten dizugu,
gure egitasmo eta ilusioak,
eta baita egin gabe
utzi ditugun gauzak ere.
Eskerrik asko, Aita ona,
maitasunez zaintzen gaituzulako
eta bidelagun zaitugulako
gure eguneroko ibilbidean. Amen

